

Hortzak Zaintzeko Zerbitzu Komunitarioa

HAURREN HORTZAK ZAINTEKO PROGRAMA

PADI - 2018

**EAEko haurren hortzak zaintzeari buruzko
118/1990 Dekretuaren garapenaren urteko txostena**

**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCOOSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

AURKIBIDEA

	Orrialea
SARRERA	2
2018KO EKITALDIKO EMAITZAK	
1. Erabilera	5
2. Maiztasuna	9
3. Hortzak zaintzea	11
4. Fakturazioa	16
EAE-KO HAURREN HORTZ-OSASUNA	18
Azterketa epidemiologikoak (1988 / 1998 / 2008 / 2018)	
EGOERAREN ANALISIA	22
ONDORIOAK	24
ERANSKINAK.	
I. eranskina. Erabilera lurralde historikoaren arabera	25
II. eranskina. Erabilera udalerriaren arabera	26


SARRERA.

Eusko Jaurlaritzak 1980ko hamarkadaren amaieran hasi zuen hortz-osasuneko politikak haurren hortzak zaintzeko sistema bat sortzea barne hartzen zuen, eta horren helburua zen hortz iraunkorrak ateratzeko eta heltzeko adinetan haurrok behar dituzten zainketak bermatzea, txantxarraren prebalentzia murriztea eta heldutasunean hortz-osasun eta osasun orokor hobea izateko aukera ematea.

EAEko haurren hortzak zaintzeari buruzko 118/1990 Dekretua argitaratzeak bere funtzio estrategikoa nabarmentzen du, eta Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI) hortzak zaintzeko oinarritzko eta kalitatezko sistema unibertsal gisa definitzen du. Sistema horrek hortzak behar bezala zaintzea ziurtatzen die urtero EAEn bizi diren eta 7 eta 15 urte artean dituzten haur guztiei. Osasun Sailaren aurrekontuaren kontura finantzatzen da, eta Osakidetza dentisten eta sektore pribatuan hitzartutakoen talde handi baten bidez gauzatzen da.

2018ko ekitaldian, 29 urte bete dira PADI garatzen hasi zela; hots, Eusko Jaurlaritzak, apirilaren 24ko 118/1990 Dekretuaren bidez, haurren hortzak zaintzeko sistema. 1. irudian, aldi honetan arreta jaso duten haurren kopurua grafikoki ikus daiteke.


1. irudia: PADIn ezarpen inkrementala eta garapena 1990-2018 aldian.



1988an, azterketa epidemiologikoak erakutsi zuen 14 urteko haurren % 82k txantxarrak zituztela, batez beste lau, eta erdiak baino gehiago tratatu gabeak. Lesio konplexuak zituztenei –batez beste zortzi gainazalera– betirako eragingo zien, oro har, helduen hortzen osasunean. Osakidetza haurren hortzetako arreta bermatuta ez zegoenez, batez ere familiarik behartsuenei gehiago kostatzen zitzaizkien haurren hortzak zaintzea.

Egoera horri erantzuteko, Osasun Sailak haurren hartz-osasuna esku hartzeko eremu lehentasunezkoztat jo zuen eta, beste neurri batzuen artean, hauek bultzatu zituen: batetik, ura fluorizatze eskema (49/1988 Dekretua) ezartzea –biztanleriaren % 78 hartzen du orain dela hiru hamarkadatik hona– eta, bestetik, hartzak zaintzeko kalitatezko sistema bat garatzea, haurrei hartz iraunkorrak ateratzeko eta atera ondoren heltzeko aldiaren aldizkako arreta egokia ziurtatzeko. Osasun-politika horren helburua haurrek hartz osasuntsuak izatea da.

2. irudia: PADIn parte hartzeko eskubidea duten haurren kopuruaren bilakaera.




Bariazio demografikoek, funtsean aurreko urteetan izandako jaiotza-kopuruak, zehazten dute 7 eta 15 urte bitarteko zenbat haurrek duten PADIn parte hartzeko eskubidea hurrengo ekitaldian. 2. irudian, gorako joera ikusten da. 2005ean hasi zen (ikus 1. irudia) eta gaur egun arte jarraitu du; nolahi ere, 2018an, xede-biztanleria Euskal Estatistika Erakundearen datuetan oinarrituta zenbatu da (*Eustat, 2018ko urtarila*). Bada, prestazioa jasotzeko eskubidea duten EAEko eskola-umeen zifra zuzendu egin da; izan ere, aipatu ekitaldira arte, adin horiei zegozkien osasun-txartel indibidualen kopuruaren arabera bakarrik zenbatzen ziren.

Aurreko urteetan, 7 urteko kohortearen haur-kopurua (sarrerako kohortea) handiagoa izan da 15 urteko kohortearena (irteerako kohortea) baino. Ondorioz, PADIn parte hartzeko eskubidea duen biztanleriaren bolumen osoari begiratuta, 31.622 haur gehiago izan ziren 2018an, 2009an baino. 2019ko ekitaldirako aurreikuspena da hazkuntzarako joera moderatu egingo dela, 1.000 haur inguru, eta baliteke hurrengo urteetan haur-kopurua pixkanaka murriztea, sarrerako kohortetako biztanleria 15 urte betetzen dituzten irteerako kohortetakoena baino txikiagoa baita (Eustat: EAEko biztanleria, lurralde-eremu, jaiotza-urte, sexu eta aldiaren arabera. 2018ko urtarila).

PADIn urtero sartzen den xede-biztanleriak programa erabiltzen duten haurren kopurua zehazten du, eta sistemak ekitaldi bakoitzean dituen kostu ekonomikoetan eragin zuzena dauka.

Hortz-asistentzia Osakidetzako profesionalak eta hitzartutako profesional pribatuek osatzen duten familiako dentisten fakultatibo-talde handi batek ematen du, eta PADI erabili ahal izatea eta onartzea bermatzen dute. Osakidetza Hartzak Zaintzeko Zerbitzu Komunitarioa 1990ean diseinatu zen, eta etengabe erabiltzen eta optimizatzen diren administrazio-prozesuak kudeatzen ditu.



Asistentzia-zerbitzuak:

- Osasun Sailak gaitutako 1.014 dentista 880 hitzartutako klinikatan.
- Osakidetza 21 dentista 24 osasun-zentrotan ematen dute arreta.
- Kontsulta duten udalerriak: 103, EAEko udalerri guztien (251) % 41.

Urte hauetan, eraginkorrak izan dira, zainketa egokiak sustatzeko, batetik haurrak artatzeko protokolo klinikoak eta, bestetik, hitzartutako dentistek emandako asistentzia kapitazio bidez ordaintzeko sistema.

Emandako arretaren ondorioz –prebentzioa du oinarri eta behar diren tratamendu konpontzaileak aplikatzen ditu–, nabarmen hobetu da gure haur eta gazteen hortz-osasuna. 2018ko azterketa epidemiologikoak agertzen duenez, 14 urteko haurren % 74k ez dute txantxarrik. Adin horretan, 0,56 txantxar izaten dituzte batez beste, eta gainazal kaltetuen batezbestekoa 0,9koa da.


PADIk osasun-erlazio bikainak lortu ditu eta horri nabarmen laguntzen diote ura fluorizatze eskema eta hortzak garbitzeko ohitura oro har hobetu izanak. Dena dela, ez dugu ahaztu behar aipatu 2018ko azterketa horrek ere agertzen duela 10 txantxar-lesiotik 3 tratamendu konpontzaile jaso gabe daudela 12 eta 14 urterekin.

2018KO EKITALDIKO EMAITZAK.

1. – Erabilera.

4. irudiak grafiko eta zenbaki bidez erakusten du PADI nola erabili zen 2018an, erabilitako asistentzia-sarearen arabera, bai eta 2009az geroztik izandako bilakaera ere. 2018an, 7 eta 15 urte bitarteko 190.736 adingabe bizi ziren EAEn. Horietatik **130.983** artatu zituzten PADIko kontsultetan.

4. irudia: PADI artatutako haur kopurua, urtearen eta asistentzia-sarearen arabera.




Ekitaldia >	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Osakidetza	8.137	8.467	8.041	8.023	8.436	8.271	8.474	8.330	7.959	7.853
Hitzartuak	95.736	98.740	100.760	106.985	110.545	113.424	115.551	119.016	121.331	123.130
Artatuak	103.873	107.207	108.801	115.008	118.981	121.695	124.025	127.346	129.290	130.983
Ez artatuak	55.221	57.538	61.709	59.557	60.819	60.634	61.678	63.272	65.462	59.753
Biztanleria	159.094	164.745	170.510	174.565	179.800	182.329	185.703	190.618	194.752	190.736

2009tik 2018ra, handitu egin da PADI artatzen dituzten haurren kopurua: 103.873 ziren 2009ko ekitaldian eta 130.983, berriz, 2018koan. Artatutako haurren kopurua handitu egin da (27.110 gehiago), 27.394 haur gehiago artatu dituztelako hitzartutako asistentzian. Aldi berean, 284 haur gutxiago artatu dituzte Osakidetza bidezko baliabideekin. Bestalde, 59.753 haur ez zituzten artatu 2018an.

5. irudian, PADlren 2018ko erabilera ehunekoa (kuota) ikus daiteke, bai eta 2009az geroztik izandako bilakaera ere, erabilitako asistentzia-sarearen arabera (Osakidetza edo hitzartua).

2018an, asistentziarako eskubidea duten 100 haurretik 65 hitzartutako dentistek artatu zituzten, 4 Osakidetza dentistek eta 31 PADlren arreta jaso gabe gelditu ziren.

5. irudia: Artatutako haurren ehunekoa, urtearen eta asistentzia-sarearen arabera.




Ejercicio	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Osakidetza	5%	5%	5%	5%	5%	5%	5%	4%	4%	4%
Concertados	60%	60%	59%	61%	61%	62%	62%	62%	62%	65%
NO-atendidos	35%	35%	36%	34%	34%	33%	33%	33%	34%	31%
% Atendidos	65,29%	65,07%	63,81%	65,88%	66,17%	66,74%	66,79%	66,81%	66,39%	68,67%

Aztertutako aldian Osakidetza artatutako haurren ehunekoaren jaitsiera (% 5etik % 4ra jaitsi da) hitzartutako dentisten sareak konpentsatzen du; izan ere, 2018an, aldiaren hasieran baino 5 puntu gehiagoko kuota du.

2018an, urteko estaldura portzentuala 2,28 puntu handitu zen 2017koarekiko. Deskribatutako aldian, 3 haurretik 2k erabili zuten PADI urtero. Urteotako bilakaerak egonkortasun-ildo bat islatzen du, eta % 67ari eusteko joera azken 5 urteetan.

6. irudia

PADIren estaldura-ehunekoaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera.



Ekitaldia >	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
ARABA	% 63,97	% 63,21	% 61,74	% 64,28	% 64,13	% 66,71	% 66,57	% 66,18	% 65,73	% 69,00
GIPUZKOA	% 61,23	% 61,54	% 60,23	% 62,89	% 62,78	% 62,36	% 62,01	% 63,09	% 63,23	% 64,59
BIZKAIA	% 68,40	% 67,97	% 66,80	% 68,33	% 69,09	% 69,73	% 70,12	% 69,54	% 68,75	% 71,41
EAE	% 65,29	% 65,07	% 63,81	% 65,88	% 66,17	% 66,74	% 66,79	% 66,81	% 66,39	% 68,67

2018an, handitu egin da estaldura hiru lurraldeetan (2,66 puntu Bizkaian, 1,36 puntu Gipuzkoan eta 3,27 puntu Araban). Aztertutako aldian, pixka bat jaitsi da diferentziala urteko estalduran, lurralde historikoen artean: 7,17 puntukoa zen 2009an eta 6,82koa, berriz, 2018an. Nolanahi ere, hiru lurraldeen arteko gradienteari eutsi zaio.

I. eta II. taulek erakusten dute 2018an Osakidetza osasun-asistentzia egituratu zuten zerbitzu-erakundeetako bakoitzeko 7 eta 15 urte bitarteko haurrek nola erabili zuten PADI. Datuek asistentzia-sarearen (Osakidetza edo hitzartua) arabera erabilera erakusten dute.


I. taula: Osakidetza/hitzartua banaketa portzentuala zerbitzu-erakundearen arabera, artatutako guztiekiko.

ERAKUNDE SANITARIOA	OSAKIDETZA	HITZARTUA	PADI
1. BIDASOA ESI	% 24,81	% 75,19	% 100
2. TOLOSALDEA ESI	% 22,12	% 77,88	% 100
3. GOIERRI-UROLA GARAIO ESI	% 19,10	% 80,90	% 100
4. DEBABARRENEKO ESI	% 14,50	% 85,50	% 100
5. DONOSTIALDEA ESI	% 10,21	% 89,79	% 100
6. ARABAKO ERRIOXA ESI	% 6,48	% 93,52	% 100
7. ARABA ESI	% 4,55	% 95,45	% 100
8. DEBAGOIENKO ESI	% 3,10	% 96,90	% 100
9. BARAKALDO-SESTAO ESI	% 2,43	% 97,57	% 100
10. BARRUALDE-GALDAKAO ESI	% 1,60	% 98,40	% 100
11. BILBO-BASURTU ESI	% 1,21	% 98,79	% 100
12. EZKERRALDEA-ENKARTERRI ESI	% 0,77	% 99,23	% 100
13. URIBE ESI	% 0,24	% 99,76	% 100
EAE	% 6,00	% 94,00	% 100

II. taula: PADiren erabilera 2018an, asistentzia-sarearen arabera, Osakidetzaren zerbitzu-erakunde bakoitzean.

	ERAKUNDE SANITARIOA	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	HITZARTUA	PADI	KUOTA
1	URIBE ESI	19.860	35	14.637	14.672	% 73,88
2	BARAKALDO-SESTAO ESI	9.996	179	7.188	7.367	% 73,70
3	BARRUALDE-GALDAKAO ESI	27.401	319	19.653	19.972	% 72,89
4	DEBABARRENEKO ESI	6.617	688	4.056	4.744	% 71,69
5	ARABA ESI	25.259	809	16.975	17.784	% 70,41
6	EZKERRALDEA-ENKARTERRI	13.169	71	9.114	9.185	% 69,75
7	BILBO-BASURTU ESI	25.959	213	17.461	17.674	% 68,08
8	TOLOSALDEA ESI	6.644	993	3.497	4.490	% 67,58
9	BIDASOA ESI	7.160	1.177	3.567	4.744	% 66,26
10	DONOSTIALDEA ESI	31.476	2.098	18.453	20.551	% 65,29
11	GOIERRI-UROLA GARAICO	9.880	1.136	4.812	5.948	% 60,20
12	DEBAGOIENEO ESI	5.943	105	3.284	3.389	% 57,03
13	ARABAKO ERRIOKA ESI	1.372	30	433	463	% 33,75
	EAE	190.736	7.853	123.130	130.983	% 68,67

7. irudia: Estaldura - PADI Erakunde Sanitarioka. (2018 urtean)




2018an, zerbitzu-erakunde guztietan gailendu zen hitzartutako asistentzia, Osakidetzaren baliabideekin ematen denaren aurretik. PADiren arretaren % 94 hitzartutako dentistek eman zuten. Gehien erabiltzen diren Osakidetzaren kontsultak Gipuzkoakoak dira, Debagoienan izan ezik. Bizkaiko eta Arabako hortz-kontsulta publikoek ez dute beren eremuetako erabiltzaileen % 5 ere artatzen. Estaldura-adierazleari dagokionez, Uribe ESIk eta Barakaldo ESIk % 73 gaintzen dute. ESI batek ere ez zuen lortu % 75era iristea; alegia, 2013-2020 aldirako Osasun Plane-neko PADiren urteko estalduraren helburura.

2. – Maiztasuna.

Haurrek, 9 ekitalditan, asistentziarako eskubidea duten adin-tartean (7 eta 15 urte), honela sailkatzen da erabilera-eredua (maiztasuna): «etengabea», haurrak PADI erabiltzen du barne dagoen ekitaldi guztietan; «nulua», haurrak ez du inoiz PADI erabili; eta «aldizkakoa», haurrak eskubidea duen 9 ekitaldietako batean edo batzuetan erabili du, baina ez guztietan.

8. irudia: Maiztasuna 2018an. Erabilera aldaerak kohorteka



III. taula: Maiztasuna 2018an. Erabilera etengabea, aldizkakoa eta nulua, kohorteka.

2018ko ekitaldia	BIZTANLERIA	ETENGABEA	ALDIZKAKOA	NULUA
15 urte	20.603	5.998	13.121	1.484
14 urte	20.896	6.618	12.582	1.696
13 urte	20.714	7.598	11.237	1.879
12 urte	20.987	8.158	10.779	2.050
11 urte	21.242	8.945	9.959	2.338
10 urte	21.961	9.951	9.045	2.965
9 urte	21.286	10.643	6.732	3.911
8 urte	21.652	12.462	4.469	4.721
7 urte	21.395	14.495	-	6.900

Irteerako kohortean (15 urtekoena), 2018an, laurden bat baino gehiago (% 29,11) estalduraren 9 ekitaldietako bakoitzean joan zen PADIko dentistengana.

2018an, 15 urteko haurren % 92,8k gutxienez behin erabili dute PADI 7 urtetatik. Horien batez-bestekoa (erabilera etengabea gehi aldizkakoa) 6,5 ekitaldikoa izan zen, 9tik.

IV. taulan kohorte bakoitzaren erabilera deskribatzen da aztertutako epean, eta ikusten da nola sistemaren erabilera gutxitzen den haurren adina gora doan heinean. Kasu guztietan, gutxiago erabiltzen dute programa 15 urtekoek 7 urtekoek baino.

IV. taula: 2009tik 2018rako aldian barne dauden kohorteen erabileraren bilakaera.

Ekitaldiak >	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Kohort. 1994 >	58,01									
Kohort. 1995 >	61,18	59,04								
Kohort. 1996 >	63,75	61,55	57,64							
Kohort. 1997 >	66,24	64,11	60,91	60,74						
Kohort. 1998 >	67,49	65,24	62,65	62,55	60,45					
Kohort. 1999 >	67,95	67,46	65,14	64,52	62,71	61,51				
Kohort. 2000 >	66,77	67,05	65,57	66,61	64,65	64,12	61,70			
Kohort. 2001 >	68,25	67,19	66,24	67,55	66,90	65,76	64,74	62,88		
Kohort. 2002 >	66,44	67,09	65,71	68,18	68,66	67,64	66,82	65,39	63,40	
Kohort. 2003 >		65,61	65,68	67,70	68,44	68,73	68,03	66,55	64,27	63,35
Kohort. 2004 >			63,56	67,26	67,38	68,90	68,55	67,92	66,41	65,81
Kohort. 2005 >				66,61	68,48	68,11	69,05	68,87	67,78	67,93
Kohort. 2006 >					66,71	68,43	68,11	68,77	68,35	69,77
Kohort. 2007 >						66,59	67,75	68,10	69,02	71,15
Kohort. 2008 >							65,69	68,25	67,72	71,15
Kohort. 2009 >								64,11	64,70	70,50
Kohort. 2010 >									65,54	70,32
Kohort. 2011 >										67,75
PADI >	65,29	65,07	63,81	65,88	66,17	66,74	66,79	66,81	66,39	68,67

Irteerako kohorteen estaldura-ehunekoa handitu egin da deskribatutako aldian, eta egonkorra da sarrerako kohortean.

10-11 urte artean, PADI erabiltzeko joera handiagoa dago; alegia, hortzak ordeztzeko bigarren etaparen hasieratik gertu dagoen adinean. 12 urtetik aurrera, urteko azterketara joateko joera berriro pixka bat jaisten dela ikusten da.

Adin nagusiagoko kohortetan PADI gutxiago erabiltzeak 12 eta 14 urteetan tratatu ez diren lesioen ehuneko esanguratsu batek jarraitzea azalduko luke. Hori horrela, 10 hortz lesionatutik 3k konpondu gabe jarraitzen dutela ikusten da azterketa epidemiologikoetan (20. orria).

3. – Hortzak zaintzea.

PADIren protokolo klinikoetan dator behin-behineko hortzetan txantxarra izan duten haur guztiei hagin iraunkorretan fisura-ixtekoak jarri behar zaizkiela. Halaber, arrazoi mediko, biologiko edo soziala dela eta, arrisku-taldean sartzen diren haurrei fisura-ixtekoak jartzen zaizkie gainazal oklusaletan edo mastekatzegainazaletan, prebentzio-neurri gisa.

Emandako asistentziaren barruan daude, halaber, kaltetutako hortz iraunkorretan behar diren prozedura konpontzaileak. V. eta VI. tauletan, asistentziaren bolumen globala eta 100 hurreko irudikatzen duen profila agertzen dira.

V. taulan, kapitazio bidezko ordainketan sartzen den asistentzia orokorra irudikatzen da:

V. taula: PADIren asistentzia orokorra 2018an.

PADI - 2018	KOPURUA, GUZTIRA	PROFILA (%-a)
Azterketak	130.983	100,00
Fisura - Ixtekoak	16.375	12,50
Garbiketak	15.952	12,18
Obturazioak	20.220	15,44
Hortz-haginak ateratzea	1.371	1,05
Hortzaren pulpako tratamenduak	355	0,27


VI. taulan, traumatismoen edo malformazioen ondorioz ebakortzetan behar den asistentzia osagarria jasotzen da.

VI. taula: PADIren asistentzia osagarria 2018an.

PADI - 2018	KOPURUA, GUZTIRA	PROFILA (%-a)
Asistentzia osagarria izan duten haurrak	1.572	1,20
Obturazioak	629	0,48
Berregiteak	1.384	1,06
Apikoformazioak	28	0,02
Endodontziak	129	0,10
Koroak	21	0,02
Hortz-haginak ateratzea	17	0,01
Mantentzaileak	4	0,003

9. eta 10. irudietan, dela Osakidetza fakultatiboek dela hitzartutako dentistek 2018an emandako asistentzia orokorraren profila eta bilakaera azaltzen dira.


9. irudia: 2018an emandako asistentzia orokorra 100 hurreko, adinaren arabera.



Adina > Kohorteak >	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	
	2011	2010	2009	2008	2007	2006	2005	2004	2003	GUZTIRA
Azterketak	14.495	15.225	15.006	15.626	15.114	14.642	14.072	13.751	13.052	130.983
Ixtekoak	3.684	3.238	2.075	1.560	1.228	1.229	1.258	1.050	1.053	16.375
Obturazioak	1.105	1.584	1.666	2.033	2.219	2.305	2.562	3.084	3.662	20.220
Erauzketak	126	152	174	170	222	201	130	125	71	1.371
Pulpako tratamenduak	12	23	29	36	24	57	41	72	50	344

PADIren protokolo klinikoetan datorren ereduaren arabera eman zaio kohorte bakoitzari asistentzia orokorra, eta adin txikikoek jaso dituzte fisura-ixteko gehien buxaduren gainean. Adinean aurrera egin ahala, ixtekoa/obturazioa erlazioa alderantzikatu egiten da. Gainera, hortz-haginak ateratzeko eta hortzaren pulpako tratamenduak edo endodontziak egiteko oso behar txikia dago adin guztietan.


10. irudia: 100 hurreko emandako asistentzia orokorraren bilakaera 2009-2018 aldian.



Ekitaldia >	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Azterketak	103.873	107.207	108.801	115.008	118.981	121.695	124.025	127.346	129.290	130.983
Ixtekoak	36.439	35.325	30.459	25.410	22.600	18.539	19.368	17.689	17.260	16.375
Obturazioak	18.563	20.697	19.862	21.402	21.062	20.185	20.210	20.590	19.999	20.220
Erauzketak	454	493	541	894	853	995	1.227	1.302	1.367	1.371
Pulpako tratam.	351	340	292	430	394	299	372	460	366	355

2009-2018 aldian, beherako joera izan dute ekitaldi bakoitzean emandako asistentzia orokorraren bolumen osoak eta profilak; nabarmen behera egin ere fisura-ixtekoetan eta zertxobait obturazioetan. 2018an PADIn emandako asistentzia orokorraren profilak aurreko ekitaldietan izandako bilakaera bera jarraitzen du, eta aldea dago Osakidetzaaren sarearen eta hitzartutako kontsulten profilen artean (11. irudia):


11. irudia: 2018an emandako asistentzia orokorra, asistentzia-sarearen arabera.




PADI - 2018	Osakidetza		Hitzartua		GUZTIRA
Azterketak	7.853		123.130		130.983
Ixtekoak	2.741	(% 34,90)	13.634	(% 11,07)	16.375 (% 12,50)
Obturazioak	2.653	(% 33,78)	17.567	(% 14,27)	20.220 (% 14,27)
Erauzketak	148	(% 1,88)	1.223	(% 0,99)	1.371 (% 1,05)
Pulpa-tratamenduak	118	(% 1,50)	237	(% 0,19)	355 (% 0,27)

12. eta 13. irudietan, Osakidetzaaren kontsulta publikoetan eta hitzartutako kliniketan, hurrenez hurren, emandako asistentzia orokorraren bilakaera azaltzen da.

Ixtekoen proportzioa hiru aldiz handiagoa da Osakidetza sare hitzartuan baino, txantxarrak izateko arrisku handiagoa duten haurren proportzio handiagoari ematen baitio arreta. Nolanahi ere, fisura-ixtekoen azken hamarkadako bilakaera aztertuta, argi ikusten da murrizketa deigarria izan dela bi asistentzia-sareetan: % 43 gutxiago Osakidetza sarean eta % 45 gutxiago hitzartutako kontsultetan. Jakina bada ere ixtekoen indikazioak gutxitu egiten direla txantxar-prebalentzia gutxitzen bada, gutxitze hori 2018an eskura ditugun datu epidemiologiko berriei alderatu beharra dago; izan ere, datu horien arabera, % 2ko murrizketa txikia izan da txantxar-prebalentzia 12 urteko umeetan eta % 10eko areagotze argia izan da behin-behineko hortzetako txantxar-prebalentzia 7 urteko umeetan, azken hamarkadan.

12. irudia: Osakidetzan emandako asistentzia orokorraren bilakaera. Kuota portzentuala


Ekitaldia >	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Azterketak	8.137	8.467	8.041	8.023	8.436	8.271	8.474	8.330	7.959	7.853
Ixtekoak	6.433	5.694	4.101	4.152	4.701	3.270	3.760	2.755	3.431	2.741
Obturazioak	2.169	2.359	1.970	2.398	2.709	2.308	2.423	2.203	2.571	2.653
Hortz-haginak ateratzea	97	92	107	137	127	117	117	109	121	148
Hortzaren pulpako tratamenduak	73	70	40	48	93	65	59	84	54	118

13. irudia: Hitzartutako sarean emandako asistentzia orokorraren bilakaera. Kuota portzentuala


Ekitaldia >	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Azterketak	95.736	98.740	100.760	106.985	110.545	113.424	115.551	119.016	121.331	123.130
Fisura ixtekoak	30.006	29.631	26.358	21.258	17.899	15.269	15.608	14.934	13.829	13.634
Obturazioak	16.394	18.338	17.892	19.004	18.353	17.877	17.787	18.387	17.428	17.567
Erauzketak	357	401	434	757	726	878	1.110	1.193	1.246	1.223
Pulpa tratamenduak	278	270	252	382	301	234	313	376	312	237

Bi sareetan, Osakidetzan eta hitzartuan, ematen den asistentziak oso profil diferenteak ditu. Ixtekoen proportzioa hiru aldiz handiagoa da Osakidetzan hitzartutako sarean baino. Gainera, Osakidetzako dentistek artatutako haurrek obturazio eta hortzaren pulpako tratamendu gehiago behar izan dituzte eta hortz-hagin gehiago ateratzen dizkiete. Horrek islatzen duenez, konplexutasun kliniko eta sozial handiagoko beharrak dituzten erabiltzaileek erabiltzen dute sare publikoa.

VII. eta VIII. taulek PADIn emandako asistentziari buruzko informazioa osatzen dute.

VII. taula: PADIn emandako asistentzia osagarriaren bilakaera; 2009-2018.

Ekitaldia >	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Haurrak	1.812	1.904	1.826	1.635	1.626	1.644	1.636	1.663	1.654	1.572
Obturazioak	795	823	682	658	623	623	620	542	623	629
Berregiteak	1.513	1.668	1.666	1.401	1.427	1.415	1.413	1.522	1.440	1.384
Apikoformazioak	89	56	52	41	23	18	17	23	19	28
Endodontziak	220	206	172	154	158	141	144	143	136	129
Koroak	18	38	49	45	41	58	30	29	36	21
Hortz-haginak ateratzea	36	28	35	24	31	17	16	18	18	17
Mantentzaileak	16	14	10	8	8	13	3	10	4	4

Tratamenduen ehunekoa

Ekitaldia >	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Haurrak	1,93	1,87	1,68	1,42	1,37	1,35	1,32	1,31	1,28	1,20
Obturazioak	1,74	1,78	0,63	0,57	0,52	0,51	0,50	0,43	0,48	0,48
Berregiteak	0,77	0,77	1,53	1,22	1,20	1,16	1,14	1,20	1,11	1,06
Apikoformazioak	1,46	1,56	0,05	0,04	0,02	0,01	0,01	0,02	0,01	0,02
Endodontziak	0,09	0,05	0,16	0,13	0,13	0,12	0,12	0,11	0,11	0,10
Koroak	0,21	0,19	0,05	0,04	0,03	0,05	0,02	0,02	0,03	0,02
Hortz-haginak ateratzea	0,02	0,04	0,03	0,02	0,03	0,01	0,01	0,01	0,01	0,01
Mantentzaileak	0,03	0,03	0,01	0,01	0,01	0,01	0,00	0,01	0,00	0,00

Artatutako haurrak	103.873	107.207	108.801	115.008	118.981	121.695	124.025	127.346	129.290	130.983
---------------------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------

VIII. taulan, zerbitzu-erakunde bakoitzean haurrek 2018an jasotako asistentzia orokorra jasotzen da, bai Osakidetzako dentistek emandakoa bai hitzartutakoek emandakoa.


VIII. taula: 2018an emandako asistentzia orokorraren bilakaera, erakunde sanitariokoa.

ERAKUNDE SANITARIOA	Azterketa	Fisura Ixtekoa	%-a	Obturazioa	%-a	Erauzketak	%-a	Pulpa Trat.	%-a
ARABA	17.784	1177	6,62	2464	13,86	237	1,33	41	0,23
EZKERRALDEA	9.186	874	9,51	1230	13,39	79	0,86	19	0,21
URIBE	14.672	1642	11,19	1280	8,72	62	0,42	22	0,15
DONOSTIALDEA	20.551	1897	9,23	3358	16,34	147	0,72	65	0,32
DEBAGOIENA	3.389	438	12,92	637	18,80	35	1,03	6	0,18
DEBABARRENA	4.744	610	12,86	1254	26,43	168	3,54	32	0,67
BIDASOA	4.744	555	11,70	788	16,61	51	1,08	36	0,76
GOIERRI- UROLA G.	5.948	441	7,41	1407	23,66	58	0,98	33	0,55
BARAKALDO -SES	7.367	1447	19,64	998	13,55	96	1,30	10	0,14
BARRUALDEA	19.972	3466	17,35	3501	17,53	173	0,87	47	0,24
BILBO-BASURTU	17.673	3057	17,30	2174	12,30	136	0,77	22	0,12
ERRIOXA	463	40	8,64	160	34,56	56	12,10	2	0,43
TOLOSALDEA	4.490	731	16,28	969	21,58	73	1,63	20	0,45

4. – Fakturazioa

2018ko aurrekontu-ekitaldian, PADIn parte hartzeko **hitzartutako familia-dentistek 5.334.530 euro fakturatu dizkiote Osasun Sailari; 43,32 euro batez beste haur bakoitzeko.**


Kopuru horretatik 5.211.225 euro (% 97,7) sistemaren asistentzia orokorrerako egindako kapi-
tazio bidezko ordainketari dagozkio (horren barruan daude hortz-azterketak, fisura-ixtekoak,
behar diren prebentzio-tratamenduak, obturazioak, hortz-haginak ateratzea eta hortz iraunko-
rren pulpako tratamenduak) eta 123.304 euro (% 2,3), berriz, asistentzia osagarriaren kontzep-
tuari dagozkio (ebakortzen eta letaginen traumatismoen eta malformazioen ondoriozko beha-
rezko tratamenduak).



AURREKONTU-EKITALDIA	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Asistentzia orokorraren kostua	4.072.696	4.167.299	4.242.419	4.496.699	4.762.590	4.845.719	4.935.137	5.043.695	5.133.398	5.211.226
Asistentzia osagarriaren kostua	146.136	156.278	149.622	131.542	143.424	149.450	137.855	131.895	125.406	123.304
HITZARTUA, GUZTIRA	4.218.832	4.323.577	4.392.041	4.628.241	4.906.014	4.995.169	5.072.992	5.175.590	5.258.804	5.334.530
Hitzartuan artatutako haurrak	95.736	98.740	100.760	106.985	110.545	113.424	115.551	119.016	121.331	123.130
KOSTUA EUROTAN HAUR BAKOITZEKO	44,07	43,79	43,59	43,26	44,38	44,04	43,90	43,49	43,61	43,32
Kapitazio bidezko kostuaren %-a (asistentzia orokorra)	% 96,5	% 96,4	% 96,6	% 97,2	% 97,1	% 97,0	% 97,3	% 97,5	% 97,6	% 97,7
Asistentzia osagarriaren kostuaren %-a	% 3,5	% 3,6	% 3,4	% 2,8	% 2,9	% 3,0	% 2,7	% 2,5	% 2,4	% 2,3

15. irudian, **hitzartutako dentistek** asistentzia orokorragatik jasotzen dituzten ordainsarien 2008tik 2018rako bilakaera jasotzen da (kapitazioa haur eta urteko). 2007ko ekitaldian, ordainketa berezitua hasi zen adin handiagoko kohorteetarako (12 eta 15 urte artean), kontuan hartuta lan-karga handiagoa dakartela haur nagusiagoen patologia aurreratuagoek. 2009az geroztik hona, tarifak ez dira aldatu.

15. irudia: Kapitazioaren ordainsarien bilakaera



Osakidetzan PADiZ arduratzen diren **familiako dentistek** 342.010 euro fakturatu dizkiote 2018ko ekitaldian Osasun Sailari, dagozkien zerbitzu-erakundearen Programa Kontratuen bidez; hots, 43,55 euro batez beste artatutako haur bakoitzeko.

Kopuru horretatik 334.375 euro (% 97,8) sistemaren asistentzia orokorrerako egindako kapitazio bidezko ordainketari dagozkio (horren barruan daude hortz-azterketak, fisura-ixtekoak, behar diren prebentzio-tratamenduak, obturazioak, hortz-haginak ateratzea eta hortz iraunkorren pulpako tratamenduak). Gainerako % 2,2 euro (7.635 euro) asistentzia osagarriaren kontzeptuari dagozkio (ebakortzen eta letaginen traumatismoen eta malformazioen ondoriozko beharrezko tratamenduak).

IX. taula: Asistentzia-sarearen araberako kostuen laburpena


Asistentzia-sarea →	HITZARTUA	OSAKIDETZA	PADI (orokorra)
Asistentzia orokorraren kostua	5.211.226 €	334.375 €	5.676.540 €
Asistentzia osagarriaren kostua	123.304 €	7.635 €	130.939 €
Kostua, guztira	5.334.530 €	342.010 €	5.676.540 €
Artatutako haurrak	123.130	7.959	130.983
Euro/haur	43,3 €/haur	43,5 €/haur	43,3 €/haur
Kapitazioaren kostuaren %-a	% 97,7	% 97,8	% 97,7
Asistentzia osagarriaren kostua %-a	% 2,3	% 2,2	% 2,3

HAURREN HORTZ-OSASUNA. AZTERKETA EPIDEMIOLOGIKOAK 1988, 1998, 2008 / 2018.

1988an ebaluatu zen lehen aldiz EAEko haurren hartz-osasuna; alegia, hiru hamarkada bete dira 2018an. Harrezkero, azterketa epidemiologikoak egin dira hamar urtez behin, Osasunaren Mundu Erakundeak estandarizatutako metodologiaren bidez, eskola-umeen aho-hortzen osasunaren bilakaera monitorizatzeko. Hori horrela, hobekuntza garrantzitsua izan zen lehen hamarkadan (1988-1998), bigarreanean ere jarraitu zuena (1998-2008).

Aurreko azterketan (2008) emaitza ezin hobeak lortu ziren: gaixotasun-adierazle global oso txikiak eta txantxarrik gabeko eskola-umeen ehuneko handiak. Azterketa horretako ondorioetan jasotzen zenez, «ahalegin izugarria egin beharko da eta baliabide ugari erabili beharko dira osasun-adierazleak hobetzea lortzeko». Nolanahi ere, EAEko haurren hartz-osasunaren IV. azterketa epidemiologikoak (2018) agertu duenez, oro har egonkortu egin dira hartz iraunkorren osasun-adierazleak, eta hobekuntza nabarmena izan da –estatistikoki esanguratsua– 14 urtekoen kohortean, ia PADIren estaldura amaitzeko adinean.

16. irudia: Hartz iraunkorretako txantxar adierazleen bilakaera (1988-2018)




7 urterekin, hartz iraunkorretako txantxarren adierazlea ia erabat hutsala den heinean mantentzen da (CAOD=0,04). 12 urterekin, 0,46 da CAOD adierazlea; beraz, EAE txantxarren maila txikiak dituzten herrialdeetako bat da, Osasunaren Mundu Erakundearen sailkapenaren arabera.

Nolanahi ere, hona hemen datu esanguratsu bat: 14 urterekin, nabarmen hobetu da CAOD adierazlea –estatistikoki esanguratsua da–; izan ere, 0,9 zen 2008an eta 0,56, berriz, 2018an.

Baliook garrantzi epidemiologiko handia dute PADI amaitzeko adinean eta, adierazten dutenez, 100 eskola-umeko 34 txantxar-lesio saihestu dira azken hamarkadan.

17. irudia: Hortz iraunkorretan txantxarrik ez duten haurren ehunekoaren bilakaera:


(CAOD %-a = 0) 1988-2018



CAOD adierazlearentzako bezala, 14 urteko eskola-umeetan izan da nabarmenena txantxar-prebalentziaren beherakada. Hala, adin horretan txantxarrik ez duten eskola-umeen ehunekoak % 61etik % 74ra eboluzionatu du.

Hortz iraunkorretan txantxarrik ez duten eskola-umeen prebalentziak agertzen duenez, 2008tik 2018ra doan hamarkadan, 100 eskola-umeko 2 eskola-ume berrik ez zuten txantxarrik izan 12 urterekin, eta 100 eskola-umeko 13 eskola-ume berrik 14 urterekin. Hortz iraunkorretako txantxarren prebalentzia, 7 urterekin, % 2-3ren inguruan egonkortu da.

18. irudia: CAOD adierazlearen osagaiak eta bilakaera




CAOD adierazlearen osagaien bilakaeraren analisiak agertzen duenez, nabarmen gutxiagotu dira txantxar aktiboak 1988-2018 aldian (eremu laranja), eta obturazioen kopuruak ez du gora egin (eremu urdina).

Gaur egun, hortz iraunkorretan, «ateratakoa» osagaia oso txikia da (adierazlearen % 2 da, 12 eta 14 urte artean, eta ia hutsala da 7 urterekin).

Nolanahi ere, 1988an zegoen arazoa oro har arindu bada ere, oraindik ere tratatu ez diren txantxar-lesioen ehuneko handia dago: 10 hortzetik 3 txantxardun 12 urterekin eta 10 hortzetik 3-4 txantxardun 14 urterekin. 19. irudian, lehengoratzutako hortzen proportzioa ikus daiteke:

19. irudia: Lehengoratze-adierazlea (LA) 12 eta 14 urterekin, 2018an




CAOren guztizkotik obturatutako hortzen %-a da LA.

BA 12 urterekin = % 71,73

BA 14 urterekin = % 64,28

7 urterekin, hortz iraunkorretako lesioen ia % 100 tratatu gabe daude.


20. irudia: Lehengoratze-adierazlearen (LA) bilakaera 12 eta 14 urterekin



Lehengoratze-adierazleak egonkortu egin dira hamarkada honetan. Gorakada handia izan zen 1988-1998 hamarkadan eta, horren ondoren, egonkortu egin da 1998-2008 aldian. Gaur egun, 12 urtekoen % 72ko lehengoratze-adierazlea aurreko azterketakori ia-ia gainjarri egiten zaio. Nolanahi ere, 14 urtekoen taldean, murrizketa esanguratsua ikusten da: 2008an lesioen % 72 obturatu ziren; gaur egun, berriz, % 64. Datu horrek murrizketa horren arrazoia are gehiago analizatzea eskatzen du, adin nagusiagoko kohorteak urteko PADI azterketara gutxiago joaten direla islatzeaz harago.


Txantxarren banaketa desberdina, maila sozioekonomikoari dagokionez.

21. irudia: CAOD balioak, eta CAOD maila sozioekonomikoaren arabera



Txantxarren adierazleek nabarmen egiten dute okerrera maila sozial baxuenetan, adin-talde guztietan. Maila sozial aberatsenetako (I-II) eskola-umeek maila pobreenetako (IV-V) txantxar kopuru erdia dute.

22. irudia: Lesio metaketa biztanleriaren zati txiki batean (arrisku-biztanleria).



12 eta 14 urtekoen taldeetan, eskola-umeen % 12-15ek dituzte hortz iraunkorretako txantxar guztien % 75-80.

Behin-behineko hortzen osasun-datuak

X. taula: Behin-behineko hortzen osasun-adierazleen bilakaera (1988-2018)

Behin-behineko hortzak	1988	1998	2008	2018
CAOD adierazlea	2,59	0,99	0,75	1,1
Prebalentzia	% 63	% 30	% 24	% 34

7 urteko haurren herenak hortz iraunkorren edo esneko hortzen bat kaltetuta dauka.

Behin-behineko hortzetako txantxarren adierazleak okerrera egiten du 7 urterekin, eta prebalentzia handitu egiten da. Zorionez, egoera hori ez da hortz iraunkorretan ematen; hortz iraunkorren egoerak egonkor jarraitzen du, eta txantxarren maila oso txikiekin.

Behin-behineko hortzetako txantxarrak kontrolatu eta tratatzea PADiren eremutik kanpo badago ere, hortz horien osasun-adierazleak okerrera egin izanak arrisku-faktoreek haur txikienetan eragin handiagoa dutela erakusten du.

EGOERAREN ANALISIA.

PADlren 29 urteko ibilbidea eta gero, ebidentzia epidemiologikoak agertzen du gaitasuna duela haurrak txantxar gutxiagorekin hazten laguntzeko. Bestalde, bilakaerari buruzko datuek eta EAEko eskola-umeen hortz-osasunaren IV. azterketa epidemiologikoak (2018) erdietsitako lorpenak eta hobetzeko aukerak analizatzeko aukera ematen dute.

Azken azterketa epidemiologikoko emaitzen arabera, aurreko urteetan hortz-osasunean izandako hobekuntza moteltzen ari da intentsitateari dagokionez. Hori, bada, logikoa da, 2008ko txantxar maila baxuak direla eta. Nolanahi ere, gaur egun berdin jarraitzen dute hortz iraunkorretako txantxar mailak 7 eta 12 urterekin, eta osasun-adierazleak nabarmen hobetu dira 14 urterekin. Pozteko moduko datuak dira eta argi eta garbi erakusten dute PADI bere funtzioa betetzen ari dela erabiltzaileak programa amaitzeko adinera iristen direnean.

Hauek dira PADlren indarguneak: Eusko Jaurlaritzaren osasun-politiken barruan dago, eta hortz-asistentzia publikoa eskaintzen die haurrei; protokoloak osasunera eta prebentziora bideratuta daude; profesionalak aukeratzeko askatasuna ematen du, odontologo talde handi baten barruan (EAEen elkargoren bateko kide direnen erdia baino gehiago); ez dago zerbitzua eskuratzeko oztopo ekonomikorik (ekitatea); hortz iraunkorrak konpontzeko estaldura osoa eskaintzen du; eta kapitazio bidezko ordainketa-sistemak prebentzioa sustatzen du eta gastu-aurreikuspena ahalbidetzen du.

PADIk, osasun-helburu anbiziotsuak lortu nahi dituzten sistema guztiek bezala (PADlren urteko estalduraren % 75 gainditzea eta 12 urteko haurren % 80k baino gehiagok txantxarrik ez izatea 2020an), badu oztoporik eta ahultasunik:

urteroko erabilera maila geldituta dago oraindik ere (hiru haurretik batek ez du PADI ekitaldi bakoitzean erabiltzen). % 75eko urteko estalduraren helburua lortzea zaila dirudi. Paradoxikoki, txantxar kopurua nabarmen murriztu izana familiak dentistarengana joateko beharraz oso jabetuta ez egotearekin lotuta egon daiteke.

Bestalde, ikerketa epidemiologikoak deskribatzen du badela oraindik gradiente sozial bat txantxarren adierazleei dagokionez (ia txantxar kopuru bikoitza maila sozial baxuagoetan).

Aurreko bi eskasia horiei gehitu behar zaie lehengoratzeko-adierazleak behera egin duela 14 urterekin azken hamarkadan. Hein batean, urteko azterketara joaten ez diren talde horretako erabiltzaileen ehunekoak (% 34) justifika dezake hori. Nolanahi ere, ezin da onartu txantxarren herena baino gehiago tratatu gabe egotea.

Egiaztatu denez, fisura-ixteko nabarmen gutxiago aplikatu dira. PADlren gainerako dekretuaren arabera, hagin iraunkorrak ixtea agintzeko irizpidea da behin-behineko hortzetan aurretik txantxarrak eduki izana. Datu epidemiologikoen arabera, 7 urterekin behin-behineko hortzetako txantxar kopuruak gora egin duenez, odontologoak motibatatu egin behar dira, prebentzio-neurri garrantzitsu hori are gehiago aplikatu dezaten.

Azkenik, hona hemen hobetzeko aukerak:

1. Hortz-asistentzia berrantolatzea Osakidetzan, eta arrisku mediko eta soziala duen biztanleriara bideratutako asistentzia odontopediatrikoa indartzea.

PADIren estaldura Osakidetzan jasotzen duten haurren kopuruak behera egin du –30.000 ziren 1990eko hamarkadaren erdian eta 8.000, berriz, azken ekitaldietan–, hitzartutako sarea handitu egin delako. Aurreko txostenetan aipatu bezala, hortz-asistentzia Osakidetzan berrantolatzeak eta prestakuntza eta zuzkidura tekniko egokiek egun ditugun baliabide publikoak efizientzia handiagoz erabiltzea bermatuko dute, eta biztanleria xede duten ekintzak, dagoeneko ezarrita daudenak, osatuko lituzkete arrisku-biztanleriara bideratutako estrategia batekin, txantxar gehiago izateko joera duten haurrak identifikatuz eta fidelizatuz.

2. Lehen Mailako Arretako ekipok haurren hortz-osasunaren kontrolean inplikatzeko.

Osakidetza historia kliniko partekatua bidez informazio-prozesuak berritu eta hobetzeak adin pediatrikoan prozesu odontologikoak sartzeko aukera ematen du, gainera, bai eta txantxarrak izateko arrisku-faktoreei, horiek kontrolatzeari eta tratatzeko aukerari buruzko formularioak ere. Horrek aukera ematen du hauek sartzeko: dela batik bat prebentiboak diren hortz-historiak, dela hortz-osasuna monitorizatzeko lanak, hain zuzen ere, beste odontologo, mediku, pediatra, laguntzaile eta erizain batzuek parteka ditzaketanak eta partekatu behar dituztenak, bakoitza bere erantzukizun mailatik. Hortz-gaixotasunak adin pediatrikoan saihesteak eragin erabakigarria du osasunean bizitza guztirako.

3. Hortz-osasuna zaindu eta kontrolatzea eskolaurreko aldiaren edo lehen haurtzarora.

Datu epidemiologikoen arabera, nabarmen areagotu dira behin-behineko hortzetako txantxarrak 7 urtekoen kohortean. Adin txikietan batik bat prebentziozkoak diren ekintzak sartzeko behin-behineko hortzetako txantxarren kopurua murrizteko aukera emango du, bai eta hortz iraunkorrak ateratzeko adinetan ere jarrai dezaketen arrisku-faktoreak kontrolatzeko ere. Eskolaurreko aldiaren prebentzio-jarduketek PADI barruko hortz-osasuneko estrategia modu eraginkorrean osa dezakete, eta emaitzak hobetzen lagundu.

4. Hitzartutako odontologoak prozedura prebentibo, diagnostiko eta terapeutikoetan trebatzea eta eguneratzea.

Programaren hasieran, prestakuntza-saioak antolatu ziren hitzartutako dentistekin, eta horrek asko erraztu zuen PADIren prebentzio-protokoloak ezartzea eta asko aplikatzea. Dentistak gaitzeko prozedura arautzen duen maiatzaren 3ko Aginduari jarraikiz, betekizuna da Hortzak Zaintzeko Zerbitzu Komunitarioak zehazten dituen eguneratze-ikastaroetara joatea. Hogeita bost baino gehiago igarota, kontzeptuak eta jarduteko protokoloak eguneratzeko eta fakultatiboak (batik bat orain dela gutxi hasi direnak) ebidentzia zientifikoak ziurtatutako prozedurak sistematikoki aplikatzera animatzeko garaia da.

ONDORIOAK.

- 1.- 29 ekitalditan garatu da Haurren Hortzak Zaintzeko Programa, eta EAEko haurren % 93k ateratu diote etekina programari 15 urte betetzean.
- 2.- 130.983 haur artatu zituzten 2018an. Beste 59.753 haurrek ez zuten erabili (EAEen bizi diren 7 eta 15 urte arteko 190.736 neska-mutiletatik, 3tik 1ek).
- 3.- 2018ko estaldura-ehunekoa % 68,67koa izan zen; hots, PADI 1990ean ezarri zenetik izandako handiena.
- 4.- Prestaziorako eskubidea duten 100 haurretik 4 Osakidetza dentista publikoek artatu zituzten, eta 65 hitzartutako dentistek. Aldiz, 31 ez ziren urteko azterketara joan.
- 5.- Artatutako haurren % 94 hitzartutako dentistek artatu dituzte. Osasun Sailak 5.334.530 euroko partida bat bideratu zuen horretarako (43,33 euro/haur).
- 6.- Osakidetza kontsultetan zuzenean artatutako haurren kopurua murriztu egin da: 30.000 izan ziren 1990eko hamarkadaren erdian eta 8.000, berriz, azken ekitaldietan.
- 7.- Haurren Hortzak Zaintzeko Programako fakultatibo-taldeko dentistek emandako asistentziak behar diren prebentzio-jarduerak eta tratamendu konpontzaileak barne hartzen ditu. Osakidetza kontsultetako asistentziaren profilak erakusten du interbentzio prebentibo zein konpontzaile gehiago behar dituztenek erabiltzen dutela asistentzia.
- 8.- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako hortz-politikari esker, haurren hortz-osasunaren adierazleak onenetakoak dira gure inguruko herrialdeen artean, eta nabarmen hobetu da azken hamarkadan 14 urterekin txantxarrik ez duten haurren proportzioa (% 74 ziren 2018an, eta % 61 2008an). Izan ere, Haurren Hortzak Zaintzeko Programako familiako dentistek ematen duten asistentziak asko lagundu du horretan.
- 9.- 2018an, 1.035 dentistak osatzen dituzte Haurren Hortzak Zaintzeko Programako asistentzia-baliabideak. Dentistok 103 udalerritan (EAEko guztien % 41) dauden 904 hortz-klinikatakoak (24 Osakidetza-arenak) dira.
- 10.- Haurren hortzak zaintzeari buruzko apirilaren 24ko 118/1990 Dekretuak garatutako sistema eraginkorra eta efizientea izan da 29 urte hauetan zehar. Eusko Jaurlaritzaren 2013-2020 aldirako Osasun Planean ezarritako ekintzak eta helburuak sustatuta, Haurren Hortzak Zaintzeko Programak txantxarra desagerrarazteko lanean jarraituko du, EAEko haurren gaixotasuna izan ez dadin.

I. Eranskina

PADI-REN ERABILERA 2018AN, LURRALDE-HISTORIKOAREN ARABERA

KOHOORTEAK	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	HITZARTUAK	GUZTIRA	KUOTA
2003	3.052	74	1.877	1.951	% 63,93
2004	3.164	58	2.013	2.071	% 65,46
2005	3.063	75	1.982	2.057	% 67,16
2006	3.197	84	2.145	2.229	% 69,72
2007	3.225	90	2.185	2.275	% 70,54
2008	3.452	87	2.391	2.478	% 71,78
2009	3.378	117	2.279	2.396	% 70,93
2010	3.569	135	2.447	2.582	% 72,35
2011	3.553	118	2.305	2.423	% 68,20
ARABA	29.653	838	19.624	20.462	% 69,00

COHORTES	POBLACIÓN	OSAKIDETZA	CONCERTADOS	TOTALES	CUOTA
2003	7.188	596	3.585	4.181	58,17%
2004	7.218	669	3.807	4.476	62,01%
2005	7.181	651	3.940	4.591	63,93%
2006	7.439	697	4.062	4.759	63,97%
2007	7.450	722	4.266	4.988	66,95%
2008	7.537	731	4.358	5.089	67,52%
2009	7.421	709	4.277	4.986	67,19%
2010	7.488	691	4.275	4.966	66,32%
2011	7.231	659	4.034	4.693	64,90%
GIPUZKOA	66.153	6.125	36.604	42.729	64,59%

COHORTES	POBLACIÓN	OSAKIDETZA	CONCERTADOS	TOTALES	CUOTA
2003	10.363	86	6.834	6.920	66,78%
2004	10.514	88	7.116	7.204	68,52%
2005	10.470	86	7.338	7.424	70,91%
2006	10.351	100	7.554	7.654	73,94%
2007	10.567	105	7.746	7.851	74,30%
2008	10.972	114	7.945	8.059	73,45%
2009	10.487	90	7.534	7.624	72,70%
2010	10.595	107	7.570	7.677	72,46%
2011	10.611	114	7.265	7.379	69,54%
BIZKAIA	94.930	890	66.902	67.792	71,41%

COHORTES	POBLACIÓN	OSAKIDETZA	CONCERTADOS	TOTALES	CUOTA
2003	20.603	756	12.296	13.052	63,35%
2004	20.896	815	12.936	13.751	65,81%
2005	20.714	812	13.260	14.072	67,93%
2006	20.987	881	13.761	14.642	69,77%
2007	21.242	917	14.197	15.114	71,15%
2008	21.961	932	14.694	15.626	71,15%
2009	21.286	916	14.090	15.006	70,50%
2010	21.652	933	14.292	15.225	70,32%
2011	21.395	891	13.604	14.495	67,75%
CAPV	190.736	7.853	123.130	130.983	68,67%

II. ERANSKINA

PADI-REN ERABILERA 2018AN, UDALERRIAREN ARABERA (Araba)

T.H.	MUNICIPIO	POBLACIÓN	OSAKIDETZA	CONCERTADO	PADI	CUOTA / %
ARABA	AGURAIN-SALVATIERRA	540	12	303	315	58,33
ARABA	AMURRIO	883	0	650	650	73,61
ARABA	AÑANA	10	2	6	8	80,00
ARABA	ARAMAIO	164	0	74	74	45,12
ARABA	ARMIÑÓN	29	1	14	15	51,72
ARABA	ARRAIA-MAEZTU	69	2	45	47	68,12
ARABA	ARRATZUA-UBARRUNDIA	91	4	57	61	67,03
ARABA	ARTZINIEGA	209	1	152	153	73,21
ARABA	ASPARRENA	151	1	109	110	72,85
ARABA	AYALA-AIARA	350	0	274	274	78,29
ARABA	BAÑOS DE EBRO-MAÑUETA	18	0	4	4	22,22
ARABA	BARRUNDIA	91	0	40	40	43,96
ARABA	BERANTEVILLA	39	0	21	21	53,85
ARABA	BERNEDO	42	0	18	18	42,86
ARABA	CAMPEZO-KANPEZU	82	2	60	62	75,61
ARABA	DULANTZI-ALEGRÍA	457	7	347	354	77,46
ARABA	ELBURGO-BURGELU	56	0	33	33	58,93
ARABA	ELCIEGO	95	2	25	27	28,42
ARABA	ELVILLAR-BILAR	27	0	4	4	14,81
ARABA	ERRIBERAGOITIA-RIBERA ALTA	82	1	48	49	59,76
ARABA	HARANA-VALLE DE ARANA	10	0	4	4	40,00
ARABA	IRUÑA OKA-IRUÑA DE OCA	453	5	327	332	73,29
ARABA	IRURAIK-GAUNA	43	0	25	25	58,14
ARABA	KRIPAN	19	0	1	1	5,26
ARABA	KUARTANGO	30	0	24	24	80,00
ARABA	LABASTIDA-BASTIDA	157	7	62	69	43,95
ARABA	LAGRÁN	7	0	1	1	14,29
ARABA	LAGUARDIA	130	5	35	40	30,77
ARABA	LANCIEGO-LANTZIEGO	59	0	9	9	15,25
ARABA	LANTARÓN	68	3	23	26	38,24
ARABA	LAPUEBLA DE LABARCA	79	0	16	16	20,25
ARABA	LAUDIO-LLODIO	1.439	0	1.084	1.084	75,33
ARABA	LEGUTIO	185	1	111	112	60,54
ARABA	LEZA	17	0	8	8	47,06
ARABA	MOREDA DE ÁLAVA-MOREDA ARABA	14	0	5	5	35,71
ARABA	NAVARIDAS	18	0	0	0	0,00
ARABA	OKONDO	124	0	95	95	76,61
ARABA	OYÓN-OION	471	3	160	163	34,61
ARABA	PEÑACERRADA-URIZAHARRA	12	0	6	6	50,00
ARABA	RIBERA BAJA-ERRIBERA BEITIA	210	12	76	88	41,90
ARABA	SAMANIEGO	17	0	11	11	64,71
ARABA	SAN MILLÁN-DONEMILIAGA	69	0	43	43	62,32
ARABA	URKABUSTAIZ	159	4	95	99	62,26
ARABA	VALDEGOVÍA-GAUBEA	71	3	37	40	56,34
ARABA	VILLABUENA DE ÁLAVA-ESKUERNAGA	18	0	7	7	38,89
ARABA	VITORIA-GASTEIZ	21.758	754	14.749	15.503	71,21
ARABA	YÉCORA-IEKORA	23	1	10	11	47,83
ARABA	ZALDUONDO	20	1	7	8	40,00
ARABA	ZAMBRANA	36	1	18	19	52,78
ARABA	ZIGOITIA	173	2	130	132	76,30
ARABA	ZUIA	279	1	161	162	58,06
	ARABA - ÁLAVA	29.653	838	19.624	20.462	69,00

II. ERANSKINA

PADI-REN ERABILERA 2018AN, UDALERRIAREN ARABERA (Gipuzkoa)

T.H.	MUNICIPIO	POBLACIÓN	OSAKIDETZA	CONCERTADO	PADI	CUOTA / %
GIPUZKOA	ABALTZISKETA	39	10	17	27	69,23
GIPUZKOA	ADUNA	65	3	43	46	70,77
GIPUZKOA	AIA	242	2	134	136	56,20
GIPUZKOA	AIZARNAZABAL	102	0	58	58	56,86
GIPUZKOA	ALBIZTUR	38	1	29	30	78,95
GIPUZKOA	ALEGIA	203	32	79	111	54,68
GIPUZKOA	ALKIZA	55	9	20	29	52,73
GIPUZKOA	ALTZAGA	30	0	10	10	33,33
GIPUZKOA	ALTZO	46	4	25	29	63,04
GIPUZKOA	AMEZKETA	105	4	50	54	51,43
GIPUZKOA	ANDOAIN	1.490	24	1.003	1.027	68,93
GIPUZKOA	ANOETA	195	34	119	153	78,46
GIPUZKOA	ANTZUOLA	268	4	126	130	48,51
GIPUZKOA	ARAMA	24	2	11	13	54,17
GIPUZKOA	ARETXABALET	741	7	502	509	68,69
GIPUZKOA	ARRASATE-MONDRAGÓN	1.827	69	993	1.062	58,13
GIPUZKOA	ASTEASU	197	9	117	126	63,96
GIPUZKOA	ASTIGARRAGA	654	6	418	424	64,83
GIPUZKOA	ATAUN	224	17	96	113	50,45
GIPUZKOA	AZKOITIA	1.312	48	882	930	70,88
GIPUZKOA	AZPEITIA	1.544	158	786	944	61,14
GIPUZKOA	BALIARRAIN	24	2	4	6	25,00
GIPUZKOA	BEASAIN	1.475	352	431	783	53,08
GIPUZKOA	BEIZAMA	12	0	10	10	83,33
GIPUZKOA	BELAUNTZA	21	7	6	13	61,90
GIPUZKOA	BERASTEGI	119	39	42	81	68,07
GIPUZKOA	BERGARA	1.285	10	605	605	47,86
GIPUZKOA	BERROBI	62	7	27	34	54,84
GIPUZKOA	BIDANIA-GOITZ	61	12	23	35	57,38
GIPUZKOA	DEBA	512	5	378	383	74,80
GIPUZKOA	DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	14.240	982	8.332	9.314	65,41
GIPUZKOA	EIBAR	2.370	518	1.246	1.764	74,43
GIPUZKOA	ELDUAIN	36	9	12	21	58,33
GIPUZKOA	ELGETA	104	4	70	74	71,15
GIPUZKOA	ELGOIBAR	1.148	19	793	812	70,73
GIPUZKOA	ERRETERIA	3.691	707	1.777	2.484	67,30
GIPUZKOA	ERREZIL	75	0	26	26	34,67
GIPUZKOA	ESKORITZA	427	5	209	214	50,12
GIPUZKOA	EZKIO-ITSASO	46	4	21	25	54,35
GIPUZKOA	GABIRIA	47	7	23	30	63,83
GIPUZKOA	GAINTZA	9	0	6	6	66,67
GIPUZKOA	GAZTELU	13	0	6	6	46,15
GIPUZKOA	GETARIA	235	0	159	159	67,66
GIPUZKOA	HERNANI	1.892	29	1.228	1.257	66,44
GIPUZKOA	HERNIALDE	38	11	15	26	68,42
GIPUZKOA	HONDARRIBIA	1.712	193	851	1.044	60,98
GIPUZKOA	IBARRA	422	92	207	299	70,85
GIPUZKOA	IDIAZABAL	284	49	113	162	57,04
GIPUZKOA	IKAZTEGIETA	49	5	26	31	63,27
GIPUZKOA	IRUN	5.448	984	2.716	3.700	67,91
GIPUZKOA	IRURA	257	43	143	186	72,37
GIPUZKOA	ITSASONDO	88	11	46	57	64,77
GIPUZKOA	LARRAUL	45	5	35	40	88,89
GIPUZKOA	LASARTE-ORIA	1651	41	910	951	57,60
GIPUZKOA	LAZKAO	621	34	347	381	61,35

II. ERANSKINA

PADI-REN ERABILERA 2016AN; UDALERRIAREN ARABERA (Gipuzkoa-jarr.)

T.H.	MUNICIPIO	POBLACIÓN	OSAKIDETZA	CONCERTADO	PADI	CUOTA / %
GIPUZKOA	LEABURU	50	11	10	21	42,00
GIPUZKOA	LEGAZPI	744	14	442	456	61,29
GIPUZKOA	LEGORRETA	160	7	68	75	46,88
GIPUZKOA	LEINTZ GATZAGA	24	1	13	14	58,33
GIPUZKOA	LEZO	546	32	368	400	73,26
GIPUZKOA	LIZARTZA	60	11	20	31	51,67
GIPUZKOA	MENDARO	286	15	209	224	78,32
GIPUZKOA	MUTILOA	30	7	11	18	60,00
GIPUZKOA	MUTRIKU	538	16	300	316	58,74
GIPUZKOA	OIARTZUN	1037	91	638	729	70,30
GIPUZKOA	OLABERRIA	79	10	33	43	54,43
GIPUZKOA	OÑATI	1.103	5	692	697	63,19
GIPUZKOA	ORDIZIA	969	62	554	616	63,57
GIPUZKOA	ORENDAIN	27	0	18	18	66,67
GIPUZKOA	OREXA	20	1	8	9	45,00
GIPUZKOA	ORIO	684	6	364	370	54,09
GIPUZKOA	ORMAIZTEGI	145	29	60	89	61,38
GIPUZKOA	PASAIA	1.412	83	788	871	61,69
GIPUZKOA	SEGURA	178	24	52	76	42,70
GIPUZKOA	SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	360	43	139	182	50,56
GIPUZKOA	TOLOSA	1.817	526	779	1.305	71,82
GIPUZKOA	URNIETA	634	6	397	403	63,56
GIPUZKOA	URRETXU	755	104	364	468	61,99
GIPUZKOA	USURBIL	762	6	505	511	67,06
GIPUZKOA	VILLABONA	604	48	359	407	67,38
GIPUZKOA	ZALDIBIA	159	32	42	74	46,54
GIPUZKOA	ZARAUTZ	2.226	96	1.462	1.558	69,99
GIPUZKOA	ZEGAMA	167	34	55	89	53,29
GIPUZKOA	ZERAIN	23	1	2	3	13,04
GIPUZKOA	ZESTOA	425	9	258	267	62,82
GIPUZKOA	ZIZURKIL	314	27	177	204	64,97
GIPUZKOA	ZUMAIA	1.043	2	657	659	63,18
GIPUZKOA	ZUMARRAGA	852	137	399	536	62,91
	GIPUZKOA	66.153	6.125	36.604	42.729	64,59%

II. ERANSKINA

PADI-REN ERABILERA 2018AN, UDALERRIAREN ARABERA (Bizkaia)

T.H.	MUNICIPIO	POBLACIÓN	OSAKIDETZA	CONCERTADOS	PADI	CUOTA / %
BIZKAIA	ABADIÑO	786	139	439	578	73,54
BIZKAIA	ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA	865	0	623	623	72,02
BIZKAIA	AJANGIZ	40	1	25	26	65,00
BIZKAIA	ALONSOTEGI	241	0	194	194	80,50
BIZKAIA	AMOREBIETA-ETXANO	1.802	1	1.293	1.294	71,81
BIZKAIA	AMOROTO	34	0	22	22	64,71
BIZKAIA	ARAKALDO	24	0	19	19	79,17
BIZKAIA	ARANTZAZU	43	0	23	23	53,49
BIZKAIA	AREATZA	113	0	68	68	60,18
BIZKAIA	ARRANKUDIAGA	120	2	72	74	61,67
BIZKAIA	ARRATZU	34	0	25	25	73,53
BIZKAIA	ARRIETA	43	0	31	31	72,09
BIZKAIA	ARRIGORRIAGA	1.209	5	931	936	77,42
BIZKAIA	ARTEA	69	0	50	50	72,46
BIZKAIA	ARTZENTALES	55	0	21	21	38,18
BIZKAIA	ATXONDO	114	4	83	87	76,32
BIZKAIA	AULESTI	49	0	33	33	67,35
BIZKAIA	BAKIO	266	0	142	142	53,38
BIZKAIA	BALMASEDA	649	0	469	469	72,27
BIZKAIA	BARAKALDO	7.953	41	5.860	5.901	74,20
BIZKAIA	BARRIKA	148	0	111	111	75,00
BIZKAIA	BASAURI	3.073	61	2.223	2.284	74,32
BIZKAIA	BEDIA	82	0	59	59	71,95
BIZKAIA	BERANGO	852	2	614	616	72,30
BIZKAIA	BERMEO	1.428	0	917	917	64,22
BIZKAIA	BERRIATUA	129	0	90	90	69,77
BIZKAIA	BERRIZ	548	24	395	419	76,46
BIZKAIA	BILBAO	25.718	213	17.267	17.480	67,97
BIZKAIA	BUSTURIA	139	1	111	112	80,58
BIZKAIA	DERIO	607	1	469	470	77,43
BIZKAIA	DIMA	145	1	95	96	66,21
BIZKAIA	DURANGO	2.818	43	2.096	2.139	75,90
BIZKAIA	EA	51	0	35	35	68,63
BIZKAIA	ELANTXOBE	19	0	13	13	68,42
BIZKAIA	ELORRIO	657	12	510	522	79,45
BIZKAIA	ERANDIO	2.193	5	1.517	1.522	69,40
BIZKAIA	EREÑO	20	0	13	13	65,00
BIZKAIA	ERMUA	1.298	70	917	987	76,04
BIZKAIA	ERRIGOITI	35	0	24	24	68,57
BIZKAIA	ETXEBARRI	1.360	1	1.098	1.099	80,81
BIZKAIA	ETXEBARRIA	56	0	41	41	73,21
BIZKAIA	FORUA	69	0	49	49	71,01
BIZKAIA	FRUIZ	70	0	47	47	67,14
BIZKAIA	GALDAKAO	2.296	3	1.707	1.710	74,48
BIZKAIA	GALDAMES	63	0	41	41	65,08
BIZKAIA	GAMIZ-FIKA	99	0	74	74	74,75
BIZKAIA	GARAI	35	0	28	28	80,00
BIZKAIA	GATIKA	182	0	131	131	71,98
BIZKAIA	GAUTEGIZ ARTEAGA	64	0	44	44	68,75
BIZKAIA	GERNIKA-LUMO	1.508	2	1.173	1.175	77,92
BIZKAIA	GETXO	6.250	11	4.714	4.725	75,60
BIZKAIA	GIZABURUAGA	20	1	7	8	40,00
BIZKAIA	GORDEXOLA	162	0	115	115	70,99
BIZKAIA	GORLIZ	588	0	409	409	69,56
BIZKAIA	GÜEÑES	632	2	508	510	80,70
BIZKAIA	IBARRANGELU	43	0	24	24	55,81
BIZKAIA	IGORRE	412	0	278	278	67,48

II. ERANSKINA

PADI-REN ERABILERA 2018AN, UDALERRIAREN ARABERA (Bizkaia-jarr.)

T.H.	MUNICIPIO	POBLACIÓN	OSAKIDETZA	CONCERTADOS	PADI	CUOTA / %
BIZKAIA	ISPASTER	85	0	52	52	61,18
BIZKAIA	IURRETA	311	4	207	211	67,85
BIZKAIA	IZURTZA	26	0	17	17	65,38
BIZKAIA	KARRANTZA HARANA-VALLE DE CARRANZA	163	0	90	90	55,21
BIZKAIA	KORTEZUBI	47	0	32	32	68,09
BIZKAIA	LANESTOSA	14	0	6	6	42,86
BIZKAIA	LARRABETZU	241	0	181	181	75,10
BIZKAIA	LAUKIZ	134	0	80	80	59,70
BIZKAIA	LEIOA	2.806	10	2.049	2.059	73,38
BIZKAIA	LEKEITIO	643	0	424	424	65,94
BIZKAIA	LEMOA	352	3	234	237	67,33
BIZKAIA	LEMOIZ	122	2	75	77	63,11
BIZKAIA	LEZAMA	232	0	179	179	77,16
BIZKAIA	LOIU	228	2	147	149	65,35
BIZKAIA	MALLABIA	105	2	74	76	72,38
BIZKAIA	MAÑARIA	46	3	38	41	89,13
BIZKAIA	MARKINA-XEMEIN	456	0	301	301	66,01
BIZKAIA	MARURI-JATABE	89	0	77	77	86,52
BIZKAIA	MENDATA	42	0	35	35	83,33
BIZKAIA	MENDEXA	46	0	21	21	45,65
BIZKAIA	MEÑAKA	79	0	62	62	78,48
BIZKAIA	MORGA	29	0	17	17	58,62
BIZKAIA	MUNDAKA	147	0	110	110	74,83
BIZKAIA	MUNGIA	1.890	0	1.417	1.417	74,97
BIZKAIA	MUNITIBAR-ARBATZEGI GERRIKAITZ	29	0	16	16	55,17
BIZKAIA	MURUETA	26	0	18	18	69,23
BIZKAIA	MUSKIZ	688	0	491	491	71,37
BIZKAIA	MUXIKA	163	0	112	112	68,71
BIZKAIA	NABARNIZ	19	0	15	15	78,95
BIZKAIA	ONDARROA	637	3	323	326	51,18
BIZKAIA	OROZKO	247	0	177	177	71,66
BIZKAIA	ORTUELLA	652	4	485	489	75,00
BIZKAIA	OTXANDIO	133	2	104	106	79,70
BIZKAIA	PLENTZIA	416	0	300	300	72,12
BIZKAIA	PORTUGALETE	3.317	15	2.286	2.301	69,37
BIZKAIA	SANTURTZI	3.740	45	2.514	2.559	68,42
BIZKAIA	SESTAO	2.043	138	1.328	1.466	71,76
BIZKAIA	SONDIKA	465	1	343	344	73,98
BIZKAIA	SOPELA	1.395	1	1.137	1.138	81,58
BIZKAIA	SOPUERTA	214	0	146	146	68,22
BIZKAIA	SUKARRIETA	24	0	14	14	58,33
BIZKAIA	TRUCIOS-TURTZIOZ	25	0	10	10	40,00
BIZKAIA	UBIDE	14	0	9	9	64,29
BIZKAIA	UGAO-MIRABALLES	327	0	254	254	77,68
BIZKAIA	URDULIZ	375	0	264	264	70,40
BIZKAIA	URDUÑA-ORDUÑA	344	0	235	235	68,31
BIZKAIA	VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN	1.024	3	755	758	74,02
BIZKAIA	ZALDIBAR	292	3	197	200	68,49
BIZKAIA	ZALLA	788	0	486	486	61,68
BIZKAIA	ZAMUDIO	331	0	248	248	74,92
BIZKAIA	ZARATAMO	141	1	87	88	62,41
BIZKAIA	ZEANURI	113	0	83	83	73,45
BIZKAIA	ZEBERIO	90	0	62	62	68,89
BIZKAIA	ZIERBENA	118	2	68	70	59,32
BIZKAIA	ZIORTZA-BOLIBAR	29	0	23	23	79,31
	BIZKAIA	94.930	890	66.902	67.792	71,41%